



ETXE  
KOMUN A

coop57  
S.C.L

## **BALDINTZEN ERANSKINA**

**COOP57TIK ETXEBIZITZA KOOPERATIBOAK ETA LUR KOMUNITARIOAK FINANTZATZEKO  
PARTAIDETZA-TITULUEN JAULKIPENA**

**[Ekainaren 2tik uztailaren 7ra ]**



ETXE  
KOMUN A

coop57  
cooperativa

## **Helburua**

Partaidetza-tituluen jaulkpen propioaren helburua gure gaitasun finantzarioa handitzea da, etxebizitza kooperatibo eraldatzaileei eta lurra desmerkantilizatzeko, babesteko eta erabilera sozial eta komunitariorako bideratzeko ekimenak bultzatzen jarraitzeko.

## **Pertsona bakoitzeko zenbatekoa**

Titulu bakoitzak 1.000 euroko balioa du. Pertsona bakoitzak gehienez eskuratu ditzakeen tituluen kopurua:

- Pertsona fisikoa: 20 titulu (20.000 €)
- Pertsona juridikoa: 50 titulu (50.000 €)

## **Harpidetza epea**

Ekainaren 2tik uztailaren 7ra. Tituluak eskaera-ordenaren arabera esleitu dira.

## **Errentagarritasuna**

- Urteko %2
- Ordainketa: urtero (ekainaren 30ean)
- Errentagarritasuna kapital higigarriaren etekintzat hartzen da eta atxikipen fiskala aplikatzen zaio (gaur egun %19koa).

## **Epemuga**

2029ko ekainaren 30a. Berritzeko aukera (une horretan ezarriko diren baldintzen arabera).

## **Itzulketa**

Tituluak edozein unetan itzuli daitezke.

Epemuga baino lehen eskatzen bada, penalizazio bat aplikatuko da: urteko errentagarritasunaren %100.

## **Nork harpidetu ditzake tituluak**

Jaulkipena baldintzak onartzen dituen edozein pertsona edo entitateri zuzenduta dago. Ez da beharrezkoa Coop57ko bazkide izatea.

## **Partaidetza-tituluen bermeak**

Tituluak Coop57ren gaitasun ekonomiko eta finantzario propioarekin daude bermatuta.

Coop57 zerbitzu-kooperatiba gisa jarduten duen entitate finantzarioa da. Ez da banku bat, eta, beraz, ez du Espainiako Bankuko Gordailuen Bermeen Funttsaren estaldurarik.

Coop57k hainbat mekanismo aktibatzen ditu bai bazkideen ekarpenak, bai partaidetza-tituluak bermatzeko:

- Soberakin guztiak erreserbetara bideratzen ditu.
- Finantzaketa jasotzen duten entitateei kapital sozialerako ekarpen osagarriak eskatzen dizkie, maileguak bermatzeko funts solidario bat osatzeko.
- Urtero, ahalik eta gehien hornitzen ditu gerta daitezkeen ez ordainketetarako erreserbak.
- Entitate bakoitzak jaso dezakeen maileguaren muga ezartzen du (Coop57ren baliabideen %2 baino gehiago ezin zaio entitate bakar bati eman).
- Hitzarmenak ditu arriskuak partekatzeko eta maileguak bermatzeko (Europako Inbertsio Funttsa, Elkar-berme Sozietateak, Administrazio Publikoak, Fundazioak eta Ekonomia Sozial Eraldatzaileko beste entitate batzuk).
- Etxebizitza kooperatiboen kasuan, hipoteka-bermeak erabil daitezke jabetzaren edo azalera-eskubidearen gainean.



ETXE  
KOMUN A

coop57  
S.C.L

Coop57 kooperatiba demokratiko eta parte-hartzailea da, eta bazkideek une oro beren egoera ekonomikoa ezagutzeko eta erabakiak hartzeko mekanismoak garatzen ditu.

Tituluak harpidetzeko baldintzak ondo irakurrita eta onartuta egon behar dira.  
Baldintzen eranskina